

Mezkiritz (Erroibar)

Investigaciones ETNIKER

Dirigidas por la "Cátedra de Etnología Vasca"

INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA

de la Exema. Diputación Foral de Navarra.

Primera parte del estudio etnográfico de Mezquíriz, en el valle de Erro, realizado por doña Perpetua Saragüeta Saragüeta. Nació en Mezquíriz el día 3 de agosto de 1905. Contrajo matrimonio con el bertsolari baztanés Trinidad Urtasun Marturet, el 22 de julio de 1931, fijando su residencia en Irurita. Es madre de seis hijas y vive en Pamplona desde el año 1944. Su esposo falleció en Mezquíriz el 29 de julio de 1978.

Es un caso notable en el campo de las letras vascas, tan escaso de plumas femeninas. Desde joven dejó constancia de sus aficiones literarias, colaborando asiduamente en tres publicaciones periódicas del País Vasco. Enviaba crónicas locales desde Mezquíriz y más tarde desde Baztán, a «La Voz de Navarra», en Pamplona, «Argia» de San Sebastián y «Euskalduna» de Bayona. Desarrolló esta actividad, por afición, en los escasos ratos de ocio que le permitían sus ocupaciones ordinarias, durante ocho años; concretamente, desde 1928 hasta 1936. Firmaba «Txorrondo», nombre del barrio de Mezquíriz donde ella nació, y más tarde utilizó también el seudónimo «Aritza».

Escribía en castellano para el citado diario de Pamplona, y en vasco para Bayona y San Sebastián.

En 1977 concluyó sus memorias en euskara, «Nere Oroimenak», un trabajo de 146 folios mecanografiados a dos espacios, que contiene precioso material etnográfico, además de los datos biográficos que ella dedica a sus hijas.

A base de este documento se concibió el plan de realizar el estudio etnográfico de Mezquíriz.

METODO DE TRABAJO

Se ha seguido el cuestionario Etniker, de don José Miguel Barandiarán, titulado «Guía para una encuesta etnográfica», cuya primera parte se refiere al grupo doméstico.

Clasificado el material disponible y colocado en orden sistemático, constatamos las lagunas existentes para responder a todas las preguntas del cuestionario.

Esto nos llevó a rehacer algunos pasajes por medio del diálogo directo, y puestos a recoger datos formulamos todas y cada una de las preguntas que contiene la Guía. La experiencia resultó enriquecedora para el estudio.

Dirige la encuesta y transcribe los textos José María Satrústegui. Reportaje gráfico de Jesús A. Larrea.

ORTOGRAFIA

Al llegar la información por dos vías distintas, surge el problema ortográfico que requiere un tratamiento muy cuidadoso. Además del interés etnográfico, la muestra que presentamos tiene el valor testimonial desde el punto de vista lingüístico. El vasco de Mezquiriz pertenece a la variedad dialectal de la zona de Pamplona, que los estudiosos llaman alto navarro meridional. Se trata de una joya cada vez más rara en el panorama catastrófico que presenta este dialecto. Interesa, por consiguiente, atenernos estrictamente a las formas espontáneas del habla popular y transcribirlas con la mayor fidelidad, al margen del rigor académico.

Según ese criterio, se ha respetado en todo el texto manuscrito, salvo algunos retoques en los signos de puntuación que afectan a la extensión y claridad del pensamiento.

Las comunicaciones orales, en cambio, se aproximan algo más a las normas de grafía actual, siempre que no se aparte demasiado de la pronunciación original. Por esa razón hemos copiado herria, hori, hura, nihor, en vez de erria, ori, ura, nior. Cuando la corrección gramatical supone, en cambio, distanciamiento o alteración del modelo popular, no hemos tenido ningún reparo en apartarnos de la gramática para ser fieles a la forma peculiar. Así, suia, aide, bietaik, en lugar de subia, abaide, bietarik.

Características muy peculiares presenta la letra j, ya que se pronuncia con dos sonidos distintos. Dice Jaungoikoa, juan, con sonido fuerte similar a la jota castellana; y por otra parte, Yinkoa, ian, iakin, se pronuncian con sonido suave de i. Por este motivo, siempre que hemos podido observar una anomalía hemos tratado de diferenciar con uno u otro signo, al margen de las normas gramaticales.

Este aparente desbarajuste ortográfico permite además diferenciar las notas del manuscrito, de los datos recogidos de viva voz.

J. M. S.

MEZQUIRITZ (ERROIBAR)

I.1. Mezkiritz. Bertakoari mezkiiztarra erraten diote.

Nik uste izan dut nere erriain izena eldu dela *ezki-iritik*; banekie ezkiak bazirela. Neguan nere aitak eskalapuin aski egiten zue eta ateratzen zitue ezkietatik eta beti galde egiten nio ia zur ura ze zuaitzetaik atera zuen, eta erraten zira ezkitik. Nik egiten nuen neure baiteik, Mezkiritz ez ote da «Ezkiri»? Eta gogoratzen nue idazkari zenbaitek eman zekola *m* eta *z*.

Nik dakidena da, Mezkirizko lur geienak erosiak direla Orreagako kanoñigoei.

Nik amabi edo amairu urte nituenean, Mezkiritzen baze liburu aundi bat batetik bertzera zebillena. Ez dakit zein etxetakoa zen, baño bai Arturo Kanpion jaun zenak egina zela; eta artan erraten zue, Mezkirizko eta Uretako artean izan zela eliza bat, bere gaixotegi batekin. Oraño bideari deitzen zaio «Elize zarko artea». Erraten zue «beneditinoak» zeudela aren kontura eta Mezkiritzen bizi ziren guziak aien langileak zirela. Errian izena eldu dela *ezkilatik*, beti an zutena. Elizan zuten ezkila beti iotzen zegola andik igarotzen zen guziari deitzen. Geienak Konpostelako Santiagora zezinak zirela; eta beneditinoek bazutela bertze eliza bat Zilbetin eta erri onen izena eldu zela *Ixil beti*-tik, zerengatik ala egoten zire benediktinoak isilik beti. Bertze eliza bat bazutela Ibañetako gañian. Bear bada Zisterkoak zire.

I.2. Huartetik Luzaiderako bideberriaren eskubitik, bidetik bazterturik, Gereñe (Biskarret) eta Aurizberri (Espinal) bien erdian. Erroibarko erria da¹.

I.3. Zenbait mendien izenak ebek dire: *Kisulabeko-oian*, *Berregu*, ebek biek lurra kisuarritzkoa dute eta leen egiten zire kisu labeak; orrengatik lemixikoari ematen zaio izen ori. *Errebelu*, *Iriko-oian*, *Ligexa*, *Irazabaleta*, *Sakarte*, *Larreburu*, *Azkazarreta*, *Errebelu-gibel*, *Izoza* eta *Dondore*. Frantzia aldera *Sorogain* eta *Lastur* mendiak. *Lezestali* ere bada.

Dermioko izenak: *Abantxal*, *Primizie*, *Mariturri*, andik joaiten da ura erreire. *Lezeara*, leze aunitz bada. *Lezemotz*, lezerik aundiena. *Txakurren-iturri* *Lasegura*, kobrea ateratzen zute aurrekoek. *Uerka*, presa aundi bat bada. *Olbide*, *Biritxikar*, lau etxe badire eta *Ipete*².

1 "Su situación es una llanura a la falda de unos montes, en los cuales baxa una regata, que pasando por junto al pueblo se incorpora inmediatamente con la que descende de Roncesvalles. Confina por n. con Espinal por e. con Garralda del valle de Aezcoa, por s. con Erro, por o. con Linzoain. Su cosecha se reduce a trigo, cebada y otros frutos" (Dic. Hist. Geog. del País Vasco, 1802).

2 Beste izen batzu ere badira: *Itolegi*, *Galtzapeta*, *Berokixoro*, *Hegiko asketa*, *Segura*, *Larregain*, *Argaeta*, *Elizazarreko bidea*, *Landa*, *Sagoieta* eta *Arreste*.

PERPETUA SARAGÜETA SARAGÜETA

Ura non nai badago. Etxe guzietan naikoa badago ez bada zer bait austen; eta austen bada zalui konpontzen dute. Erriari badire bi iturri ederrak, beren bi aska aundiekin: bat erriari erdian, eta bertzea Txorrondoko barridean. Uste dut bertze tiki bat badela Biritxikar-ko barridean. Mendietan ere badire arront ur onak: *Ligeztan*, neguan epela eta udan otza, edaten dutenei ongi ianazten duena. *Egiko asketan*, *Askazarretan*, *Mariturriko* errekan, au ugalderaño. Toki geiagotan bada ur geiago.

Nik badut alorre bat Sakarten eta oian bazter guzitik iausten da ura, nere alorretik goitixago sortzen dena. Mezkiritz ongi dago urez eta mendiz.

Errekak: *Useiñ-erreaka*, han garbitzen ze arropa. *Mariturri*, hemengo ure juaten da errireño. *Ugeldia*, Erro izena duena; ttarra da baño errota bazen lenago. Frantzia aldera dago *Ladron-erreaka*.

I.4. Dermioa ez da zelai-zelaia, baño gañeko karrike eta beko karrike biltzen diren tokia zelaia da. Lezeara erraten dioten dermioan badire leze bat baño geago. Ebetaik batera erori omen ze neskatxa gazte bat eta Ardaizko herriko iturrian agertu omen ze beatza eraztunaikin.

Bertze leze bat deitzen da Lezemotz eta ontara bota omen zute karlisten gudariek liberalen nagusi baten andrea bi ilabete eskas zituelaik haurra izateko.

Eta Berreguko leze batera erori ze zazpi urteko mutiko bat, Apesuiñekoa. Lezean galdu zue boneta eta lezetik ateratu zutelaik eskatzen zue boneta amatxik asarre emain ziola. Gizajoa! Bidean hil ze.

I.5. Nere haur denboran biltzen zire: ogi pikorra, oloa, artoa, garagarra eta bertze batzu. Txixirioa, lenteja edo tilixta, aiskola, ilerra (guisante ala alubia) eta baba aunitz.

Gure Sakarteko alorrean biltzen zire pikor guzietatik, eta baita ere aketa edo kafe arront ona; baño etze zil eraintea. Arront berokien dago alor oi. Arront kafe ona ze, hori ikusi dut nik. Ongi polite ttipixagoa baze ere. Goxoagoa bear bada.

Biltzen zire, gero, azak, litxue, tomatiak, piperrak ez asko, patata anitz. Lursagarra ere erraten ze. Tipulak, zanaoriak, lekak.

Bazire sagarrak, udere guti, aranak, gereziak, kalabazak, intxaurrak. Intxaur baten ondoan dagon etxea suerte txarrekoa izeten dela erraten zuten. Udere tiki batzuk eta maurgiak (fresas). Mendiko maurgiak, urrek eta intxaurrak biltzen zire anitz. Mazurtze (mora), kamamile, mendiko te, patxarana. Hau urte batien bai eta bertzien ez. Kamamile aguztuko 15etik urbilen ilabetearen 8raño biltzen ze³.

3 Bertze zugaitz batzu: *Lizarra*, *ezkia*, *makala*, *aran beltza*, *ezpela*, *lisontsia*, *orra*.

MEZQUIRITZ (ERROIBAR)

I.6. Mezkirizko erria da tikia eta pollita. Mezkiritz euskalduna da. Erroibarko errietan pollitenetaik bat eta euskaldunena; bere oiturak dituena eta bere Eliza maite duena.

Emengo seme alabak arront langileak dire *Japonesak* deitzen tuzte, beren lanak eta bertzenak egiten dituztelakoz. Aspaldiko esaera zar bat bada, erraten duena: «Mezkiritz eta Olondritz, ogi guti eta aur anitz».

Nere gazte denboran gutiz gora bera bagine 365 bizilagun Mezkuiririzko herrian. Orduan bagine 56 haur eskolan. Orain ez da herrian 150 jende ere. Uden bertzerik da; herria betetzen da umez. Nere etxea bera; hamasei haur eta beren gurasoak hamar gehiago, nolana higeite hamar gehiago.

Kanpotik etorri diren nagusi etxeoandreak badire zenbait, Errotik, Iruña, Larrasoaña, Lusarreta, Etxalar, Baztan, Alkotz, Lakabe, Aezkoa eta Arrietatik. Ni neuri Iruritara juan nitze, itzuli banitz ere. Nere haurtzaroan eta gazte denboran Ameriketara juaten zire anitz ezagutuak, ezkondu onduen eta guzie. Orai ez da juaten. Orai Zubiriko magnesitek ematen diote bizibide polite. Gehienek baduzte nekazaritzako aparexuak eta gero irabazten dute sos ederra zortzi ordu lanekin.

Euskeraren egoera. Nere haurtzaro eta gazte denboran euskera ze nagusi herri guzian, baño orai gizonen artian hala bada ere, andren artean ez da hala. Andren artean erdara iago mintzo da, ez dakit zetaz. Orai badire gaztetan ikesten ari direnak ere, eta uste dut gutire gutire euskera nagusituko dela denetan. Gañera badire etxeak euskera geiago mintzo dutenak. *Herriko Txokoan*, len ostatua zen, euskeraz solas egiten dute gizon gehienek. Lau bortz etxe dire euskeraz egiten dutenak. Uretan denek egiten dute.

I.7. Herria aski bildua da. Bi barride ditu: bat Txørrondo, sartzean, eta Biritxikar ateratzean, mendi aldera. Eta bi karrike, bata bertzeari begira. Gañeko karrikeko etxeak sarraldera begira eta pekoak sortaldera. Erderaz *calle de arriba eta calle de abajo* deitzen dituzte. Apesui etxe alzinean bada plazatxo bat eta hemendik elize atera badire eskalera batzuk arront erraxak igateko. Ureta nagusi batena da. Hiru etxe badira. Biritxikarren lau familia bizi dire, Txorrondon sei. Herrian 27 etxe aterazten zaizkit⁴.

⁴ A principios del siglo XIX tenía 14 casas y 83 personas: "La jurisdicción civil la ejerce el alcalde nombrado por la vizcondesa del Val de Erro, y la económica los diputados elegidos por el valle y los regidores del pueblo alternando entre vecinos. En 1366 tenía 5 fuegos" (Dic. Geog. Hist. del P. V.).

PERPETUA SARAGÜETA SARAGÜETA

I.8. Mezkirizko etxien izenak.

a) *Txorrondo.*

1. Paxkualena. Iturri ederra altzinean.
2. Juan Ferminena.
3. Juan Migelena, gurea.
4. Juan Martinena.
5. Pedro Ferminena.
6. Arakiñena. Eroria. Etxe hontan sortu nitze ni.
7. Alfontxoña.
8. Zirkutuña.
9. Arabeña. Moro zenbaitena ote ze?
10. Manuelaiña. Karterua. Nere bi aitetxiak hemengo semeak zire.

b) *Herria.*

11. Manuel Antonioña.
12. Sotoña, Buruzuriña.
13. Patxikoña.
14. Bentarroña. Badire bertze tiki gehiago nagusi beranak.
15. Zizilieña.
16. Marterena. Aspaldiko izena, Behar bada lau mende baño gehiago.
17. Monjelos edo Monyolos.
18. Maistro zarraña edo Migelitoña. Lengo nagusia Kuban sortua.
19. Juanikotena.
20. Kanutoña. Karabineroa ze.
21. Fermin Errearena. Arront berria.
22. Lallarena. Hutse.
23. Herriko Txoko. Lehen herriko ostatue.
24. Estankoa.
25. Txokolateroña. Hutse.
26. Kondearena.
27. Berñardaña.
28. Etxetxipia. Etxe hontan sortu eta hari ze nere aita.
29. Echeberria izen da beti. Berritu baño lenago ere.
31. Apesui. Nere bi amatxien sortu etxea. Ez ziren deus elkarrendako.
32. Apeztegia. Orai apeza bizi den etxea.
33. Eskola etxea. Ontzena eta batzarreak egiten diren etxea.
34. Artegia. Hutse.

MEZQUIRITZ (ERROIBAR)

35. Zurienea.
36. Artzai aundienea.
37. Adamenea.
38. Antorena.
39. Gartxotena. Erre ze eta orai ongi egina da.

d) *Biritxikar.*

40. Moñaña. Oso pollita omen ze etxe hontako etxeoandrea orai duela bost bat gizaldi.
41. Kolixena.
42. Juan Martinena. Orai alkate jauna bizi da.
43. Txantxikoña.

I.9. Lenago bazire sei artzai bedere. Orai lau bakarrik. Bei geiago eta esne anitz. Iruñara saltzen da.

Bordak: dozena erdi bat borda bada mendian: Bentarraina, Ziziliaina, Adamena, Paskualena, Apesueina, eta Antorena. Hauek diren tokiek beren izena artzen dute: Bentarrañeko bordaldea, Zizilieneko bordaldea, Apesuien bordaldea, Paxkualeneko bordaldea, eta bertzeak berdin.

Artegia deitzen da ardi borda. Erriak ez du bere bordarik.

I.10. Gehienak nekazariak zire. Urtetako beren patata beden egiten zute. Bertze alde herrian bazire:

*Kuxeta egiliak*⁵ lau bat etxetan. Alorrak ere bazuzten.

Esporterua. Familia bat, baño ongi egiten zute. *Uztaiak* ere egiten zitue.

Zurginak bazire bida: Kolixenekua eta Patxikoinekua. Biek zire onak.

Arotxa, Auritzen ze. Bertze batzu Errora juaten zire.

Gasna. Ardiek diren tokian egiten dute gasna. Beiak diren tokietan lenago bazire beorak ere. Orai esniaikin bizi dire.

Arrantza. Eskuz egiten ginue. 36 bat arraiñ hartu gabe ez gine etxera etortzen. Ni ere nere anaia Lazaroikin juaten nitze eta gogotik gaiñera. Kan-grejorik ezta. Ur hotzegiak dire.

Eiztariek. Hoitaik ere bazire. Arrapatzen zute: erbiek, eperrak, axeriek, bixerrak⁶, hoiek eskuekin arrapatzen ginduze. Urigelak⁷ sasoi hontan, urtarri-lean, eta maurgi denboran izeten zire.

Basurde anitz bada orai. Patata alorretan makur aundiak egiten duzte eta kabalendako jan gutxiago dute.

5 Cucharero.

6 *Bixerra*, lirón.

7 *Urigela*, ur-igela, rana.

PERPETUA SARAGÜETA SARAGÜETA

I.11. Etxe aundiak eta lur anitz dutenak *etxaldeak* dire. Bertze guziak *etxiak*. Itzaldi batean entzun nio erriko apezari, niok maite bear bazue Orreagako Ama Birjina, guk, Mezkirizko errikoeak ginduela puskan ere egin-bide geiago, zerengatik an egontze anitz denboraz erriko umeen ama eginez. Arrek erran zuenez Mezkiritz eta Ureta arteko elizan egontze anitz Jerusalemendik ekarri onduan. Bai eta erraten zue uste zela Lukas Ebanjelistak egina zela. Erran zue zer urtetan eta dena ain garbi, irudi zue irakurri berri berria zuela.

Mezkiriztik artu eta Ibañetara zematela orduko benediktinoek, eta gibeletik zezila arabeak eta orduen, beldurrak etzirala Ibañetara iritxiko, Orreagako sagoi batean sartu zutela alzuten bezain ongi; baño ez zutela denborarik izen idazteko ere nun utzi zuten. Il izain zirela gerran edo bertze gisa, baño niok ez dakiela geiago, atera artio.

I.12. Bi karrike dire: Gañekoan sartaldera dituzte ateak. Pekoaldekoak iruzkia ateratzen den aldera. Bideberria ez da orai herritik joaten, baño lengo bide zaharra eta kañada bai⁸. Nere aita igureia ze⁹ artzaiei laguntzera ateratzen ze eta laguntzen zitue. Atrutzen nitze ni ikustera, Belardiak *sagoiak* deitzen dire. Nekazaritzako lurak *alorrak*.

I.13. Hameka etxe omen zire zaharrenak. Frailien etxia ze Monjelos edo Monyolos erraten zakona. Bentarrañekoa eta Apesuiñekoa haundixuene-taik dire. Elizeindako entzun izen dut Nafarroko zaharrenetaik bat dela. Nere amatxik erraten zue bazela harzulo haundi bat Sakarten, ez dageri baño bazela, eta arront ongi egine zela. Guk ez dugu egundaño miretu baden edo ez. Baño nere amatxi hil ondoan etorri ze Mezkiritze apez Migel Beortegui jauna, eta igande goiz batez erran zigu Sakarte dermioan bazela harzulo haundi bat eta han bizitu zela sandu haundi bat eta lur bedeikatua zela gisa guzietara. Sakarten izen daike bertze harzulo bat; baño izen daike nere amatxik erraten ziguna bera. Dena dela, toki ona da pikor gisa guziendako.

Mezkirizko etxetan bakotxa bere etxean bizi da. Bakarrik Kixkilen Bentan ez da hala. Nagusia Iruñan bizi da eta nere lengusu bat egoten da. Uretan ere bazire mutilen etxeak, baño hutsak dire orai. Nagusia bakarrik bizi da Uretan.

Txorrondoko Paxkualenena, nere denbora guzian izen ori eman zaio, etxe aundienetaik bat da. Badu larrain bat ederra eta andik sartzen dute

8 "A mi en el pueblo me han negau, esaten dio erdaraz Gema bere alabari, pero yo me acuerdo muy bien. Por el pueblo pasaba la cañada de los rebaños de Roncal y Salazar. Delante de mi casa solían pasar". "Y yo me acuerdo, erantzun dio alabak, unos franceses que hicieron a pie el Camino de Santiago, pasaron por el pueblo y se fueron por Ureta, fuera de la carretera."

9 *Igureia*, guarda. *Irugeia* dicen en Urdiain.

MEZQUIRITZ (ERROIBAR)

agoztegira belar, agotz eta bertze gauza anitz. Altzinean badu iturri ona bere aska ederraikin; urte guzian badu ure. Gañerako inguruan badu baratze bat ederra bere sagarrondo onekin. Toki ederrean dago.

Juan Ferminenak ere badu bere larrain eta baratze ederra, landa ederraikin. Gero goraxago, ezkerreko aldean, dago nere etxea. Arabeña dagon tokian, len ezagutu nitue nik bi etxe eta biek bota eta egin zute bat bakarra. Orai utsa da. Gero bertze etxe aundi bat bada; Adamenea deitzen da. Badu zenbaki bat 1226 edo 62, ez naiz segur. Nere idurikoz zenbaki ori, etxea berritu zelaik arri oiek utziak edo ekarriak bertze toki batetik. Etxe orrek nere ustez ez du ainbertze denbora eginik. Gero badu baratze ona, eta erletokia ere bazue len, orai ez dakit.

Bertze alde, eskuñetaik errekein gañeko aldean bada baratze bat, eta berain kontra etxea, Artegia. Lenago bizi ze jendea, baño orai gañan belartegia, eta azpian ardiak egoten dire.

I.14. Elkarren modukoak dire etxe gehienak. Harrizkoak izango dire, nere ustez, baño gainetik zuri. Lau eskinetan bakarrik dituzte agirian harriak. Anitzek segurik bai.

Etxe indartsuenetan badire eskalerak, kanpotik agoztegira ezartzen direnak. Hortarako badute teilatu azpien borta haundia. Eskalera gero ekendu iten dute. Handik bizkarka erematen tuzte belarrak eta agotzak, etxe barnetik ibili beharrean. Nekazarien etxeak eta artzaienak elkarren iduriek dire. Ganbara haundi bat badute.

I.15. Kasi denak estrabiliak tuzte beitién, animaliak zaintzeko. Lehenengo bizitegian bizitzen dire etxeok. Sukaldea ere goitien da, eta lo egiteko kuartoak berdín. Agoztegia du izena hirugarren ganbarak. Labea baze etxe gehienetan; orai ekentzen ari dire. Egunoro ekartzen dute ogia herrira, zertako duzte labeak? Ibiltzen ez badire galdurik gelditzen dire gañera.

I.16. Etxe batzu ezagutu ditut, hiru segurik, sua erdian zutenak. Etxamine oso zabala zute, erronda teilaturaño. Teilatuak, lau segurik, pikuak dire gurea bezala. Bertziak ez.

Beitién, gehienetan, dena zabal zabala ze. Ol batzurekin berexiak, patata eta halakoen lekua, eta bertze aldean animaliak.

Gure etxia nola zen erranen dizut. Hiru parte zire: alde batetik, ezkerre-ra, patatak lehenik pilare bat jo arte. Olekin banaturik, gero, txerriak. Bertze aldean, behi eta behorrak. Eskalera zabalak zire erdi erdian. Orai estrabiliak zimentaz zolatu dituzte Diputazioaren laguntzarekin, eta gernua putzura isurtzen da, gero alorretara ateratzeko.

Lehenbiziko bizitegian baze sukalde ederra, ausarkia. Hiru kuarto gintueguk. Haietaik batian aita amak haur ttikienaikin iten zuten lo. Seaska eta

PERPETUA SARAGÜETA SARAGÜETA

arropero haundi batzu han. Bigarrenian amatxi, 88 urtetaraiño bizitu baitze, eta gu neska guziok ere beraikin. Mutikoak denak bertzean. Mutikoeinian ogi pikor eta bertze zerbait ere baze gehienian. Gurean, bai.

Bertze etxe batzutan, sukalde a kuarto haundi bat ze, ilune. Eztakit leiho haundirik bazue; baño ilune ze. Nik ez nue maite. Erdi erdien sue eta inguruen, lau aldetatik, eskaiñuek, jartzeko alkiek. Aspaldiko etxe zaharretan ze hau. Goratzen zen mahai bat ere bazuten.

Bi fraile bazire su ondoan. Harri gorri gogor batzu zire fraileak, eta batetik bertzera burni luze bat, Bi fraileen erdien iten ze sue. Su lekua burnizko plantxa haundi batekin izaten ze, lurretik puska bat goratue. Hori lehenago ze. Badire orai hiru lau etxe, guria bezala, sukaldia beitiien dutenak.

Urik etze etxetan, iturrira juaten gine eske. *Txurruسته* baze, paretatik kanpora ura botatzeko. Etxe batien etorri ze behin gizona ur-urian, bustia dena, eta etxean sartzian erran zio andreak: — Ia que bustik zauden karzadazu ferreta bat ur. Juan ze gizona eta ekarri zio. Andriaren ondoan pasatzean bota zio buru-beitik ferreta ure eta dena busti.

— Juanexpa, erran zio gero, orai bustik baitzaude ekarzazu ferreta ure.

Neri ere gertatu zaidan holako zerbait. Gesala ze eta ezin ibiliz heldu nitze iturritik, ta osabak irri. Haren paretik pasatzerakoan ferreta ustu nio burutik behera, eta busti. Denak ikusi zute, eta ongi egin niola erran zio amatxik bere semiai.

Egurrezko lurra izeten ze, bagoaikin eginiko ohol zabalak. Sukalde haundietan harri zabal batzu, losa harriak. Supaster inguruen ladrilluekin egine.

I.17. Etxe berria egiten hastean, harri bet hartu, zulatu eta urtean dabilen sos bat sartzen diote. Egun hartako periodiko pusket ongi doblaturik, eta noren etxia ze, edo nork inarazten zue. Nere etxean bada hori. Behar bada ogi pikorren bat ere bai.

Nere aite ta ama ezkondu ondoan, nunbait indarrean zire, eta hasi ere etxe berria egiten. Zaiñ zañetik egin zute. Neure aitari entzuna dut, lurretik azpian zuen pareta kosta zitzagola lurretik gañekoa baño gehiago. Anitz beiti eginak zirela. Eta gutira gutira egin zute, baño aitak kanpoko ere egiten zue lana, eta neguan ezpelezko kuxetak, irabaztekotan. Egin zute pareta nagusia eta eman ziate tellatua. Trapua ezartzea izaten ze, gauza hoiek egin zirelaik niok ez zuelakoz minik hartu. Gure etxe berrian trapua ezarria omen ze ni sortu nitzelaik.

I.18. Etxetako tellatu gehienak dire bi uretara. Badire lau aldetara dutenak ere: Estankoa, Galan eta bertzeren bat. Baño, hoiek gutienak dire.

Lau bortz etxek teilatu pikuak dituzte. Nere etxean altzina eta gibelera juaten da elur eta ur guzia, eta badire bortz bat etxe gisa berekoak; ez da

MEZQUIRITZ (ERROIBAR)

elurrik gelditzen deustako. Hoiek dire Aurizberrikoak bezala. Badire bertze batzuk elurra zortzi egunez egoten dena tellatu gañetan.

I.19. Leiho buruak egurrezkoak dire; badire harrizkoak ere. Zurieneak badu harrizkoa hozka batzuketan eta oso landue. Bertze etxe batzuen harriekin ine izen bear du.

Bi pusketan izeten ze ate nagusia. Erdia ertsirik egoten da eta tranka badu gainien, goitik behera agatzen duena. Irekitzen denari zurezko furrillo bat pasatzen dio.

I.20. Etxia nork ina den markatuik badute batzutan. Nere amatxiin sortu etxiak harmarria ere badu. Apesuiña da eta otsoa arbolean zuti du. Leiho gain eta atalburuak oso landurik dauzkatenak ere badira.

I.21. Lurretik goraxago dire suek. Sukalde erdien zire etxaminek, errondoak zire. Orai ez; orai lau kantonekoak. Txapa burnizkoa da eta egurra erretzen da. Ezpelak bero yago du. Orai badire ekonomikak eta gasarekin ere aritzen dire.

I.22. Laratza pertza eukitzeko burnia ze. Erosten bazindue ollo bat edo ollarra, txerri tikien bat edo hala, laratzain inguruen pasatzen ze, eta buelta emanez erraten ze: «Etxera bil, etxera bil, etxera bil!» (hiru aldiz). Kanpoko hurre etxera etortzen baze ere iten ze. Katuei ez; katuek etzue deus balio.

Laratza etze mugitu behar. Deabruak irri egiten zuela erraten zute.

I.23. Etxaminetik.

I.24. Labea ladrilluekin egina ze. Paretaik kanpoko aldera ateratzen ze. Orai galtzen hasiek dire. Labe azpian barne bat baze, labe guzia arrapatzen zuena. *Txakurtegi* edo *zakurtegi* deitzen diote eta egurra gordetzeko izaten ze.

Lehenik sua egiten ze, gero labea garbitu sua bildu ondoan eta ogia sartu. Atzetik opilak, ataka altzinean. Hiru gurutze egiten zire, otoitz hau erranez:

Jangoikuak duela parte
Aingeruek bertze hainbertze
Eta gaistuek ez batere. (Hiru gurutze)

Etxi labea eta hiru Aitagure segurik erreztatzen zire: bata etxe hartako animendako, San Kristobali... eta bertzia ez naiz oroitzen norendako. Sanduendako opilek zire gure otoitzak.

PERPETUA SARAGÜETA SARAGÜETA

Haurretan erraten zigute: *Puntu ta puntu ta petatxui* ez. Zer da?» Labia ze. Baño, labia erraten baginue, ollua zela erraten zigute. Dena lumaz beteik. Bat erraten baze, bertzia izen behar ze.

I.25. Garai batez kinkia ibiltzen ze argitako. Petroliokin pizten ginue. Bazire arront politek, ilunagoak ere bai. Gure etxian haste hastetik sartu ginue eletrika. Gure aite lanien ibildu ze, pentsa bere etxien nola sartuko zuen! Lenbixikotaik.

Nere amatxik erraten zue, aita amak bizitu balire, sorginkeria zela errain zutela. Orai, bertze leku guzitan bezala, dendetan saltzen diren bonbilla eta bertze puskak ibiltzen dire.

Nik ezagutu dut bi harrirekin sua egiten. Gue aitak su berria ere hala pizten zuen etxean. Berak pizten zue aste santuan. «Apezak ere hala iten dine!» erraten zue. Bisten ze kandela bedeikatue eta gero harekin egiten ze sue. Larunbat Sanduan.

I.26. Sukaldien bazire ferreta eta pitxera. Armaio haundi bat platerak zutik paratuik. Guatze haundia kuartoan, arropero zarrak eta kutxak. Hemen dugu kutxa, Iruñen, handik ekarria. Ur bedeikatu ontzia baze sukaldian eta ganbaran.

Kortxilla, agotza eta belarrak agozteitik botatzeko zuloa ze ¹⁰.

I.27. Etxe onduan bordarik etze. Txerriteia bai. Bertze batzutan txerriak estrabilian egoten zire, eta olloak ere bai. Ollo arroska bat izen ginue kukurruku iten zuena, eta egunian bi arrautze.

I.28. Ni ikazkintzan ibilia naiz. Geurek egiten ginue ikatza, aitak ezin baitzue. Iketz-plaza ze sua egiteko lekua, eta *ikeztogia* deitzen genio egur pilai. Haundiek izeten zire. Su eman onduen erraten ginue: «*Jangoikuek duela parte...* Ogia egitekoan bezala.

Gauaz ikeztogiari kaso egiten ez gine gelditzen.

Mendian ez ginue ikazkinek txabolaik. Etxera etortzen gine, eta ongi ateratzen ze.

I.29. Zenbait etxe, dena putzikatu ¹¹ eta berriz eginak dire. Ekonomia bada gehienetan eta lurreko sua ere gordetzen dute. Gasa sartua da denetan, bañoak ezarri dire. Gure etxean badire bida.

10 En Arruazu se llama txurkillo o txirkillo.

11 *putzikatu*, desegin. "Me han putzikau todo" dicen en castellano (Gemma Urtasun).

I.30. Sua piztean ez da deus erraten.

Atsetan bai. Sua bildu, hautsaikin estali, hiru gurutze egin eta otoitza: «Jangoikuak duela parte, Aingeruek bertze hainbertze, eta gaistuek ez bate-re». Beti bezala. Aitagure bat errezatu etxe hartatik atera diren animendako. Gero gañean tenaza eta burtziñe elkarrekin gurutzea egiñez uzten dire.

I.31. *Subilero* egunean —eguberriz— su haundia egiten da eta meza-tik etxera etortzean su ondoan egoten zire. Gau hortako sua estaltzen ze eta iraunazi egiten zaion.

I.32. Errana dugu laratzean pasatzen ziela ollo eta animalia txikiak, «etxera bil», hiru aldiz erranik. (Ikus. I.22)

I.33. Etxe bakoitzak badu elizan *hobie*¹², erderaz fuesa. Argie erematen ze. Orai paratu duzte alkiek eta ez da gehiago argirik.

Ezkondu ta biharamonean bi familietako hilendako meza izaten ze. Nik denei in diet gisa berien, beti bi familiendako. Igandean erresponstuak ematen zire. Erretorea ofertorioan estolaikin jeisten ze eta juaten zire apa ematera. Botatzen ze bi pezta eta ogia, orduan. Akitzen zelaik meza ematen zire erresponstuak.

I.34. Haur tipiak badakizu nun enterratzen zire? Etxe aurreko baratzean. Nik badut anaia bat baño gehio han enterratua. Bizirik sortu ze, nere amak segido bataiatu zio, eta gero etxeko baratzean enterratu. Baratzeak, ene iduriko, badu doi zenbait. Baze sagar arbol bat eta haren ondoan ortzi zute. Paratzen ziate gurutze bat arbolai, baño paratu zuenak bertzerik jakiten zue.

Apezak bataiatzen bazue, kanposatura erematen zute.

I.35. Etxe bati teillatua ematean trapua paratzen dute. Minik hartu gabe lana egin dela adierazteko omen da.

Dena despeitzean etxea bedekitzen da. Gurea egin gabe daukagu eta egin behar dugu.

Erramu igande goizean bedekitzen dire erramuak edo elorriak eta hoi en egurrekin gurutzeak egin eta belaietara eta alorretara Santa Kruz egunean juan, eta ur bedekiatue bota, Aitagurea errezatu eta gurutzea lurrean sartuik uzten da. Santa Kruz maiatzekoan. Baratzetan ere berdin.

Etxeko atean ere paratzen dire. Bordan eztakit, ez ginue bordarik.

Sorginen kontra ur bedekiatue izaten ze.

12 A la sepultura llaman en Urdiain *ogia*, sin duda, corrupción de *hobia*.

PERPETUA SARAGÜETA SARAGÜETA

Zakur larrue paratzen ze belaunetan reuma sendatzeko. Txakur beltza-
ren larrue behar zue, ez zue balio zuriainak. Eta kentzen zeko oiñazia.

Abere hilen hezurak Uerkan sartzen duzte.

Iñazturaindako trisajio egiten ginue. San Kristobal iñazturen kontrako
santue ze. Bela biztue, eta erramu adar txiki bat erre behar ze suan. Nik
uste intxaurra suerte txarrekoa den.

I.36. Etxe inguruan baze baratzea. Haurra izen onduen *haur-ondokuak*
baratzean sartzen zire.

JATEKOAK

I.37. Hiru otordu zire nagusiak: almortzue, bazkaria eta afaria. Uda
denboran, goizik juaten zire gizonak lanera eta, barua hausteko hartzen zute
anise xortat galleta batekin. Gero, hamaikatakoa, eta atsalde erdian beste zer-
bait. Hurrek ez gindue hainbertze iaten.

I.38. Sukaldien iaten ze. Iruzkiaren ordue segitzen ginue. Alorretara
ereman izen dut anitzetan bazkarie. Itzalpean iaten ginue orduen. Saskian
erematen ze iatekua. Oihal garbia lurrean paratu ta ogia ta bertziak haren
gañean. Atratzen zire ilarra ta birike puska ederrak han egosiek. Hartan
ederki iaten zute eta dena garbi.

Neguen lenbaño lehen iten ginue goatzera juatia. Errosarioa errezatu ta
guatzera. Aitak erraten zue: ez dugu argia ta egurra gastatu besteik iten.
Denok guatzera. Eta juaten gine.

I.39. Eguerdian egiten ginue bazkaria. Hura ze eguneko haundiena.
Bertze ianaldi ttikiei *otordu* erraten genio. Almortzue goizean. Mezkiritzen
etze gosaria erraten. Tipule berdian maite zute egosirik, ure ta patata pare
batekin. Baba pikorra iaten ze anitz, txingar edo txistor puske batekin. Txin-
garra hobe. Harekin ardo xorta bat eta ogia.

Bazkarian, salda zerbait, ilerrak, iler berdiak patataikin ere bai, aza pata-
taikin. Zukua erraten ze (potaje). Gero solomo pusket edo magra. Ardikia
anitz iaten ze Mezkiritzen.

Atsean, salda xortat, tortilla patataikin, esnia. Hurrek talo ta esnia,
talo ta gazta, talo ta ezta.

I.40. Iatekuak prestatzeko txingar urine ta bildotsaine ibiltzen ze. Bil-
korra (gantza) ere bai. Patataindako arront ona ze. Nik ezin ian nue. Olio
xorta bat nahasirik bilgorraikin, pipergorrie bota eta hura ian. Hogeita zazpi
egun irauten zigu litro olioak.

MEZQUIRITZ (ERROIBAR)

I.41. Gizonak udan, batzutan, goizeko laueta juaten zire belar ebakitzera. Alde batera hartzen zute lana. Anisetu xortat galleta batekin hartzen zute; etzire triputse.

Ultzietan haragie ekarriko ze eta egingo ze hobeki. Gaztamine hameiketako, eta atsaldean berdin, bostak aldera edo hala. Hau ardo xorta batekin.

Beti hobekixago iaten ze igandetan, astelegunetan baño. Arrozada pusket, gehienian. Ardiki edo bildoskia ere bai.

I.42. Udan lehenik litxue ta tomatia. Salda edo zopa. Txixirioain saldaikin iten ze zopa. Gero txixirio edo ilarra, eta haragi egosia patatekin.

I.43. Jateko garaian ardua baze beti. Sagardoik ez ginue hartzen. Etxe batean egiten zute, nik uste, baño etxerako bakarrik.

I.44. Sukaldeko mahaian iaten zute. Aitak bazue leku berezia mahai buruan. Zoaz zure lekure, erraten zio etxeoandreak. Aitain onduen amatxi, bertze aldean anaia zaharrena. Etxekoandrea jatekuak prestatzen ibiltzen ze eta etzue mahaian iaten. *Kukurrubiko* iartzen ze su bazterrean.

Mutilak ez zuen gehienetan nagusiaren mahaian iaten. Su ondoan mahai ttipian. Paskualeñan bai, nagusiakin batera.

Ni juaten nitze anitzetan lanera, bai patata atratzera eta bertze edozein lanetara. Beti nagusiakin eta etxeoandreakin iaten nue. Nik ian dut nahi duden guzia, guti aski nue. Baño zenbait etxetan neurrian ematen zute iatera.

I.45. Katillu batetik denok a rantxo iatia ere tokatu zaigu. Etxian ere bai, baño gehiago alorretan.

I.46. Kuxeta bazkarian eta afarian ibiltzen ze. Esne, kafesne, salda eta zopa hartu behar delaik. Almuertzuen ere gehienien salda hartzen ze.

Kuxeta zurezkoa ibiltzen ze, ezpelezkoa. Beranduago burdinezkoak. 1936an sartu zire gure etxean burdinezkoak. Ameriketaik etorri zire amain bi anaia eta erosi zaizkote. Izena paratu ziote A. M. Antonia Martinez. Ordu artio ez gindue burdinezkoik.

I.47. Behatzekin iaten dire gazta, ogi ta eztie, talo, ur, intxaur eta halakoak. Udariak, sagarrak eta aranak. Orain kostilladak iten dituzte Ligeztan, uda denboran, eta eskuz iaten dute. Laugarren festa egunean juaten dire. Ur ona badute onduan. *Bortz-hortzekua* erraten da tenedorea.

I.48. Arrautziak era askotara iaten dire. Gordinik, egosiek, urien pasatuek. Kredo bat erraten den denboran egiten dire. Patata tortillan, jamonaina, xixe tortille, batez ere, maiatz xixekin. Biperrekin, perrexilarekin, tipulekin; bertzalde, natilla, bizkotxo eta halakoak.

PERPETUA SARAGÜETA SARAGÜETA

Mezkirizko neskazar batek kisuekin edo halako zerbaitekin gordetzen zitue. Eztakit nola. Iruñara erematen zitue.

I.49. Bazkal altzinian otoitza beti egiten ze. Aitak berak egiten zue gure etxian. *Anjelus* lehenik. Gero bertze hau: «Jangoikoak bedeinka dezala guk orai ian behar duguna bere zerbizu sailduen bizitzeko». Gure Aita, eta Agur Maria. Subilero egunian eta bertze halako festa haundien batean haurrek bedeikatzen zute. Erderaz erraiten zute: «Aquel bendito Niño que nació en Belén, bendiga esta comida y nos de su gracia. Amen». Bertze batzuk ondar hitzak aldatzen dituzte: «... y a nosotros también».

I.50. Baru egunak zire, Aste Sanduko asteazkena, ortzegune ta ortziler. Larunbata eguerdi artio. Gainerakuan, ortzilaretan bijilia. Pentekoste bezperain bezpera baru izeten ze, baño Orreagara juaten gine eta xixe tortille iaten gindue. Bertze edozein gauza ere bai. Prozesionia zelako bertze egunerako uzten gindue bijilia.

Gure etxian baze bertze egun bat aitek paratue, haundiena: Doloretako ortzilerian baru ta bijilia. Gure aitek zio debozionia eta denoi inarazten zigu.

Bijili egunian ajuarrierua jaten ze gehienian. Xardin freskuak ere bai. Baru egunian jaten gindue ongi: arrautziak tortillan, frexituek...

I.51. Iñautetan txerri belarriak iaten zire; zango ta besuak ere bai. Iñautetako igande eta asteartian, nik uste. Taillarinak bazkotan. San Sebastian egunian umerria. Eguerri egunean eta bazko egunean antxumia baze beti. San Kristobaletan, herriko festak bai dira, arakai bat erosten gindue.

I.52. Ogia etxean egiten ginue, zortzi egunetik gutxi gora behera. Neri ongi ateratzen zire. Eskuetan zego anitz; estue balin bazue, estu ateratzen zela. Honek zer du eskuetan? erraten zue nere amak. Ogi pikorrain irinakin egiten ginue.

I.53. *Oromaian* (artesa) oratzen ze. *Arraska*, oromaiari oreka kentzeko burdina izeten ze. *Zaia* kentzeko, errotan pasatzen ginue irina. Gero baiak bazire etxetan finago uzteko. *Endaia* edo *endoiarekin* biltzen ze brasa; burdinezko pala haundiarekin bildu eta sutokira bota. Makila luze bati ezpelak paratu eta harekin garbitzen ginue ongi. Ogia sartzeko pala oso luzia ze.

Bagua ze gehienian ibiltzen ginuen egurra labea berotzeko. Arrailduta gordetzen ze, ongi idortue. Arront ona. Ezpela ere ona ze. Labea berotzeko zenbat egur behar zen iakiten ze. Barne guzia brasa bezala iartzen ze, eta gero neurrira etortzen utzi behar ze. Garra piske bat uzten ginue atakan, labe barnea ikusteko.

MEZQUIRITZ (ERROIBAR)

I.54. Etxeko orantza izeten ze. Ore ondarretik hartzen ginue eta kati-llu batean gorde. Batzutan etortzen zire bertze etxe batzutatik orantza eske, «ordaintzat utziko diguzue?» erraten zute. Gure ama pozten ze eskatzen baziote. Gero itzultzen zuten berriz ordaina.

I.55. Eskuz oratzen ze. Orantza hartu eta ongi biguindu, gero ore osoan ederki ine nastu eta oratu ongi. Etzen irin pikorrik gelditzen.

Orea inguratzeko oihal beltzak bazire, ogi oihalak, Iruñeko Eugi ta Espartzaren fabrikan egiten zuzten. Gure ahaidiak zire nagusiak.

Orea arrotu egin behar ze gero; hazi artio oihaletan egoten ze. Oromaiaren olak bazue neurri bat, eta neurrira allegatu artio uzten zute.

Orea puskatu iten ze, ogien neurrian. Oromaiaren tapa gainian edo bertze mahai edo olen batzuen gañian uzten zire ogiak labera sartzeko prest.

I.56. Ogi biribilak egiten ginuze. Borobile ze baño, gañera itzultzen ginio tontor bat. Bedratzi liberakoak edo hala izaten zire, bi kilo ta erditik hiru bitartean. Hoiek zire haundienak, bedratzien bat. Gaiñera lau bat opile iten zire, eta gero txiki batzu, bakoitzaindako berie.

Arrotze anitz ginduelaik iten gindue bizkotxa. Aitaindako uzten ziote, goizian anis pixkoatekin hartzeko. Opilak atratzien sartzen ze. Trinidad etortzearekin ogi luzeak egiten ere hasi gine. Ofiziokoa ze Baztanen.

Oromaian sartuik egoten ze hoztu artio; gero armario haundi batean gordetzen zire, oihalean ongi inguratuta. Obrakoan hautsi digute armarioa.

I.57. Igual irina eskas ginduelaik, edo ezin ekar, patata sartzen gindako eta arront ganosa ze. Ogiak gatza behar du, igual hamar esku ore horrendako. Eskuek ez ditugu sobera haundiek.

I.58. Guk ez ginio garagarrik ez bertze pikorrik nahasten.

I.59. Arto irinaikin egiten zire lenago opile batzu. *Borone* deitzen ginio. Guti iaten ginue. Nik ez nue maite batre. Ogiain labien egiten zire. Aza hosto gaiñian zartzen ze borona hori labean. Lodia ze.

Talua lurreko suan iten ginue. Burdinezko pala izaten ze hiru tirarekin. Aise ze lotu gabe atratzia.

I.60. Talua anitz gauzeekin iaten ginue: tripotaikin, eztiarekin arront goxua da; gatzarekin, txingarraikin. Txistorraikin ere bai.

I.61. Xerria hiltzen da etxetan. Famili haundietan bida. Nabala haundi batekin hiltzen ze. Kanibeta ere erraten zako; zerri hiltzeko kanibeta. Bezperatik prestatzen zute gizonak.

PERPETUA SARAGÜETA SARAGÜETA

Goizean goizik iltzen ze txerria; gure etxean iltzen zue aitak eta odola artzen zue amak, eta odolain loditasuna ekentzen zue amak. Il eta kixkorratzen zute ekenduz bilo edo illea. Gero garbitzen ze ongi ur ausarkikin. Ateratzen zitzago barnean zuen dena eta uzten ze dilinden, ateratzeko ur guziak, idortzian gero puskatzeko.

San Migel inguruan ardiak eta ahuntzak hiltzen dire. Garai hortan lan anitz izeten da: patatak atra, ogi pikorra erein, egurra ekarri, iretziak egin, eta iateko gehiago behar ze. Ahuntzek ardiak baño haragi geago izeten du. Batza ta baratxuriaikin gordetzen ze haragia.

Olluak amatxindako hiltzen ginduze guk. Erosi ere izen tut etxeko guziak ian eta. Eri egoten ze amatxi. Lapinek ere bazire; estrabilean edo, etxe kanpoko aldetik hazitzen gindue.

Xerri hiltzia. Xerria, pikadera deitzen ginion egur zabal baten gañean hartu ta lepotik bihotzera sartzen ziate kanibeta. Odola burdinezko ontzi haundi batean hartzen zue etxekoandreak. Gantxoa baze, mutur azpitik sartu ta xerria ekartzeko. Atarien bertan iten ze sua. Iretzieikin erretzen ziate; gañetik pasatzen zako sua eta ur beruaikin, irekiten ari delaik, garbitu. Kixkorratu erraten da. Tripak atera, odola garbitu eta dilindatu.

I.62. Tripotak egiten dire, txistorrak eta birike ere bai. Tripotai nas-teko gantza batzu kentzen zaizko lepo ondotik. Zartañan buelta bat eman eta nastu. Hiru lau kilo arroz behar izeten dire; zerri haundia baze, bortz, lau libera terdi tipule, kilo pare bat bezala, eta gatza. Hoiekin denekin odola nastu.

Lukerike egiteko, magra guzia ekentzen ze txerri puskei, xeatu dena makiñez. Ematen zitzako gatza, baratxurie eta piper gorrie. Ederki nastu eta ertzetan sartu. Gero muturrak sokaz lotu eta idortzeko makiletaik dilindetu.

Birikei ematen zitzaio magrain partez ordinarriokua; birike, lepoko haragiek eta hala.

Piltzoa da ertze haundiena, eta han sartzen da puska bat. Etxerako izeten da. Zerraka ebaki eta erreik iaten gindue. Bada gero ertze *lopetua*, bertzea baño txikiagoa. *Ertze mutue* alde batetik bakarrik lotzen ze, bertzetik lotua ze.

Tripota, lukerike, eta bertze gañerakoak egiteko, andre bat ere etortzen ze gure etxera. Amatxi, ama eta gu iru aizpa bagine aski. Gure amak arront esku ona zue gauze hoiek egiteko.

I.63. Txerri puskak erematen zute aurrek. Bi barridetara: aitein sortu etxera bai eta ere amatxin eta aitetxien sortu etxetara, eta osaba izebein etxetara. Gosari ederra egiten zen gizon alde batendako. Senidealde ederra gindue, eta denak deituak izaten zire.

Apezai eta maistruai puska onak: solomo txiki bana.

MEZQUIRITZ (ERROIBAR)

Txerri puskak. Negurri oneko tripota eder bat, gibel puska sariekin inguratuik, bizkar hezurreko puske, txingar zuri pusket. Magroa bazue, aita amen etxerako ze, eta kostilla puska bat ere bai.

I.64. Gatzian sartzen zire lau kuartoak (azpiak) eta arteko puskak. Hankak eta belarriak ere gatzian sartzen zire. Burua erditik bi puska eginik, edo lau pusketan sartzen ze gatzian. Oromaian berian gatzatzen zire.

Urinekoak. Urinekua erraten da baño, urin baño geago badu olio. Uri-nean sartzen dire: solomua ongi xerradatuta eta kostilla hezurrek. Txistorra eta lukerike ongi idortu onduan. Eltze haundiretzu batzutan sartzen zire urinekoak.

I.65. Ez zire suan edo kean pasatzen.

I.66. Idortzen zire urrek, intxaurrak, aranak. Arront txinurrie bezala gine. Amaikin juaten gine biltzera. Iruzkira atratzen ginduze eta ederki idortuik sartzen zire. Baratzean edo bertzela gáineko kuartoetan iten ginue. Urrez betetzen gindue kutxa bat, eta bertze bi kostal seurik bazire urrez beteak.

Patxarana ere idortzen ze. Kafe pikor batzu, zukria eta kanela botatzen ginio.

Ikusten ginduelaik atea egurrez beteik eta bazela ogia ere, kantatzen gindue:

*Elur melur,
ez nuk hire beldur:
badiou etxean ogi eta egur.*

I.67. Zizak ere iaten dire. Maiatzeko xixak dire hoberenak. Arrotziekin, tortillan iaten dire. San Juanetan euria iten badu onddo goxuak ateratzen dire. Udazkenean ere bai. Gibelurdiñak ez dakit iendiak iaten dituen.

I.68. Karakol mota bat baño geago izeten da. *Nabarricos* deitzen direnak iaten dire. Marradunak izeten dire. Bertze marron haundi batzu badire, asuñe den tokian egoten direnak; *sagu karakolak* erraten diete eta hoiek ez ditu nehork iaten.

Saltsa iteko, menta belarraikin egosi behar dire, olio frexitue bota eta ian. Ajuarrieroindako arront onak dire.

I.69. Ueldean ezta kangrejoik izeten, barbo eta bertze halakoik ere ez. Sobera ur hotzak dire. Urigelak (ur-igelak) bai iaten zire. Hartu, garbitu, larrua ekendu eta irin piska batean pasatu olio ez saltatzeko. Gero frexitu eta ian. Nik ez nitue maite.

PERPETUA SARAGÜETA SARAGÜETA

I.70. Arrañak (amurrainak) eta txipak bakarrik iaten dire. Arrainkumiak dire txipak. Botilla haundi batzutan ogi apurrak eta halako zerbait bota eta iatera sartzen direnien arrapatzen dituzte.

Arrañak eskuz arrapatzen dire. Nik bi eskuekin eta ahoakin ateratzen nitue. Bortz hortzaikin (tenedor) ere bai.

Txipak tortillan iaten dire. Tripak atera, olioan frexitu eta arrotzia bota. Arrañak frexituik. Aizturrekin tripek ekendu, idortu, irin piskatian buelta eman, gatza bota eta frexitu. Ez da olio saltarazten batre. Magraikin atera.

I.71-73. Ardien gatza eta behiena badire herrian. Ardienak du estimazioik gehiena. Gazta egiten ikusi izen dut baño ez dut inoiz ikasi. Horren berririk ez dakit.

I.74. Zabalak eta haundiak izeten zire, eta denbora berean lodiek. Ia hiru kiloko gaztak. Sukaldean ol gañetan egoten zire.

I.75. Gaxure txerrieri ematen diete. Rekesona ere egiten zute.

I.76. Gaztanbera (mamia) nik ez dut egiten. Baztandik ekartzen ditate. Esnea harriekin erretzen ze. Harri arront gogorak zire, iduri zute burdinek eta erraten zute zirela *aire-gaistuak* (rayos). Orai ere esnia erretzen bada neretako goxuen.

Mezkiritzen etxeren batean edo bertze egiten zute gaztanbera. Apexuñean nik uste.

I.77. Orai behi esne asko izeten da eta *Copeleche*-k erosten du dena. Juntakoak izen behar dute. Iruñera erematen dute.

I.78. Esne mindua deitzen da. Galdua ere bai. Itzultzen dugu eta berria, ona, ematen digute. Natari *gaiña* erraten diote. Horrekin mantekilla egiten da.

I.79. Asto esneik etze kentzen. Eritasun zenbaitendako ematen zela badatik. Ez naiz oroitzen zendako.

I.80. Baratzean biltzen diren guzietaik iaten da. Ilar berdiak, San Migeletan *potxak* edo ilar pikor freskuak. Baba berde ta idorrak. Baratze belar asko: eskarola, letxuga, borraja, baratxuriak, tipule, aza eta zanaoriak.

I.81. Aketa edo kafia biltzen ze, erran bezala (I.5), gure Sakarteko alorrean. Arront ona. Frantziatik ekartzen gindue ereiteko pikorra. Gero erran ziote kastigatuko zituztela eta utzi zute. Kafia hartzen da¹³. Mendiko tea eta kamamile ere ere hartzen dire ez-ongitasun, zerbait hautematen delaik.

¹³ En cuanto a la palabra *aketa* afirma que la utilizaban en el pueblo. Dice que era también la marca de un café que pasaban de Francia. En todo caso no dice akeita,

MEZQUIRITZ (ERROIBAR)

I.82. Ardo beltza, tintoa, edaten da gehiena. *Xatuan* erematen ze ardua alorrera eta mendira. Sagardoa etxe batean edo bertze egiten zute; baño etxerako bakarrik.

Gizonek alorrera edo mendira juatean usuala edo pattarra edaten zute. Anis merke bat izeten ze. Patxarana etxekua ze. Koñak beranduago sartu ze. Nere senarrak etzue ezkondu zen eguna artio koñakaik edan eta kalte egin zio. Ez du iñoiz geago hartu.

I.83. Edarietaik patxarana bakarrik egiten da etxetan.

I.84. Nere senarra 38 urtetan ezkondu ze eta aitaren altzinean etzue fumutzen; etze atrebitzen eta gordeka iten zue. Gehienak soldado juateko denboran hasten zire fumutzen, edo handik etortzean.

I.85. Etzen tabakua bertzeik deus fumutzen. Etxean ereiten gindue, baño debekatu zigute. Boneta ertzean gordeik erematen zute gizonek. Soka edo korda ori bat dilindan zuen metxero bat baze. Harriekin pizten ere eza-gutu dut.

Nere alaba bati gorputzetik ateratzeko agindu zioten fumatzia. Astean behin edo hala iten zue. Orai hiru alaba baditut egiten dutenak eta bertze hiruek ez.

I.86. Orai gauza anitz bada iateko. Lehenago hobeki iaten ze orai baño, nere ustez. Gauza guziek ongi egiten zute; orai edozein gauzek kalte.

I.87. Bizmoduan asko altziñetu da. Lenago urik etzelaik etxetan arropa zikinek garbitzera juaten gine negu minean. Estalpe batean putzu aundi bat baze errian erdian, ogei andre edo neska inguruan egon zaizke garbitzen eta ez ze ur zikinik biltzen. Kurritzen ze anitz. Baño udaberrian, denbora ontzen zenean juaten gine Useingo errekarra, eta an bakar bakarra gelditzen gine eta ederki garbitzen gindue.

Baño, bein batez, nere ama eta ni ari gine arropa alde bat garbitzen eta bat batean nere amak egin zue karraxi aundi bat. Txutitu ze eta ilerrosi zitue bere soñeko guziak, eta suge aundi bat erori ze lurrera. Nik ikustean, arri aundi bat artu bi eskuekin eta bota nio buru gañera eta ilik gelditu ze. Nik ikusten nituen sugeak iltzen nitue denak. Aldi hortan nere ama aurra azten aize.

Udan edo denbora arront ederra zegolaik, juaten gine ugalderra. Asto gañan artzen gindue arropa zikina, xagona eta bear ziren gauza guziak eta

sino *aketa*. Pierre Lafitte me ha dado a entender que el origen de este neologismo puede estar en Hazparren. Un grupo de mujeres que se reunían en tertulia, se pasaban la contraseña *akeita* cuando querían referirse al café.

PERPETUA SARAGÜETA SARAGÜETA

ederki garbitzen ginduze. Iruzkiak egiten zue lanik aundiena. Zer urrin goxua gelditzen zitzaion eta zer xuritasuna!

Orai etxe guzitan bada ur hotza eta beroa. Arropa garbitzeko tresnak ere bai. Dena berek egiten dute.

Lenago komuna olezkua izeten ze, zulo batekin, eta kanpora egiten ze. Tapa ere bazue. Orai badire bañoak denetan, eta batzutan bida. Eta berdin hotzaren makinak eta bertze gauza anitz. Autoak badire etxe guzietan. Puskan obeki bizi da jendia.

JANTZIAK

I.88. Mezkitzen bazire bertako jantzi bereziak. Aezkoan ematen direnen antzekoak zire. Luze luziak, beltzak, ertza ere beltza, eta maukek uke-rairaño. Gona aztaleraño luze.

Neska gazteak hori bera zute baño, arraia txuri edo lore ttipi batzuekin. Orreagako prozesiotarako iahten zuzte.

Ezkontza ere beltzez egiten ze eta berdintsu ze arropa. Hildakoai bere arropa hoberena iahten zitzako berekin eremateko. Nere gizonai traje berria ina neko, bi alaba batean ezkondu zirelaik. Baten aitetxi ze. Hure guardatu diot berri berrie eta harekin beztituik juan ze.

Bataioko arropak. *Maindrekuai*¹⁴ besuak arrapatu, biak kurutzatuik, eta zanguak ere kurutzatuik. Gaietik *ilaurikua*¹⁵ eta *paxa* zabala. Azkenik bestido brodatue. Ebanjelioak kuttun baten barnean.

I.89. Barneko arropak. Emakumeak gona xuria erematen zue azpitik eta gona nabarra gañetik. Atorra xurie pieza batian egine. Hamalau urtetaik edo hasite, pantalon edekie iahten zuten. Korse estu estua burdinezko ballena batzuekin, altzinean lotzen zena. Ongi estutzen ze bularren parean ongi berdindurik juateko. Estuena zaramana ze hoberena.

I.90. Bata batzu iten zigute frango zabalak. Larruzko mandarra haundi bat eremeten zue aurretik nere aitetxik, hankak eta belaunak arrapatuz. Gielian lotzen zue. *Larrutx* izena paratu ziote. Kuxeta egilia ze. Larruztarrak gara orai haren ondokoak.

I.91. Etxean iosten zire: bonbatxo urdinak arropa gaietik iahteko. Atorrek, bai andriañak eta bai gizonañak. Kixku-kixkurre inik paratzen ziuzte plantxaikin bi altzinaldiak. Gizonen pantalonak ere etxean iosten zire;

¹⁴ *Maindrekuua*, pañal. En otras regiones se llama *xatarra*.

¹⁵ *Ylaurikua*. En Valcarlos se dice *Borraxa*.

MEZQUIRITZ (ERROIBAR)

berdin puntuezko txaketak, galtzoñak (medias). Algodon zurizkoak eta beltzak. Ardiain ileakin iten zue haria amak edo amatxik, gizonen galtzoñendako. Emakumien galtzoñek telaikin iten zire.

Koperatiba izeten ze Mezkiritzen eta saltzen zire puntuz egindako galtzoñek. Kamisetak ere erosiak zire.

I.92. Gizonek erematen zute larruzko gerrikue. Nere aitek minaindako bakarrik erematen zue gerrikoa. Lehenago berriz oihalezko gerriko luze batekin inguratuik juaten zire. Tirenteak jai egunatarako zire. Pollitek izeten zire.

I.93. Hamasei ilebetetik urte terdi bitartian paratzen gindakote pantalonak haurrari. Eta zer poza hartzen zute! Lanera juaten nitze irabazitako sosaikin anaiei pantalonak erosteko. Ikusten nue hain pozik iartzen zirela!

Emakume adinera etortzean hasten zire neskak arropak aukeratzten. Nik hamazazpi urtetaraiño deus ez nue.

I.94. Oiñetakoak. Mutikuek neguan bortzegi giltzadunak ibiltzen zituzten. Elurrean ibiltzeko eta eskolara juateko *eskalapuñak* bazire¹⁶. Eskalapuñak nere aitak iten zitue. Makille luze baten puntuen bazue burdine egurra ekentzeko. Ongi iaten zue egurra ez baze kamusten (akesten). Xerria hiltzeko bezalako maia bazue hortarako; hura bera izeten ze.

Ezpartinak izeten zire ausarki tiendetan, gomazko abarkak ere bai; nik ez nitue maite. Igandetan zapetak.

I.95. Ezpartina anitz ibiltzen ze gure denboran. Lau ilabete iraunazi behar zitzaio pare bakotxai bertzela etzego ezpartinik. Hortako ez gine hainbertze iostatzen. Etzire han egiten, beti erosi behar zire. Zola ezpartuzkoa zute eta gainetik oihal azkarra.

I.96. Orraxtatzen hamalau urtetan edo hala hasi nitze. Beti amak egiten zigu bitartean. Arront ile ederra nue eta neu hasi nitzelaik sobera rize-tuik zego, amaren ustez. Rose gisakua nue. Amak bi trentza lotzen zitue eta nik laso utzi nahi. Olio frexitue kamamilaikin ematen ginue.

I.97. Ez bazen doluik, etze ezkonduen eta neska artean diferentziaik. Etze paratzen buruko pañueloik. Larruz xuri-gorriek izen behar ginue. Beltzaran ez paratzeko aurpegia estali egiten ginue iruzkira ateratzean, eta zahi uraikin garbitu zuriago egoteko. Etze pollita iruzkiaren beltzadura. Aitai

¹⁶ *Eskalapuña*, almadraña o zueco de madera en una pieza. Al llegar a este punto aclara a su hija Gemma, que utilizaban madera de carrasquilla.

PERPETUA SARAGÜETA SARAGÜETA

berai entzun diot, *zein beltzaran paratu da* guregatik amari erraten. Eta etze gauza hoietan sartzen.

I.98. Belarritakuak. Belarritako ona ez baze, nere amak etzue paratzen. Hitza ere, ona ez baze, etzela entzun behar adierazten zue horrekin.

Eratzune gizongaiak ematen bazue, bai; bertzela ez.

Buruan agarrapelo izeneko sardeka batzu ibiltzen zire ilea biltzeko.

Orraxiain matirelekoa izaten ze.

Arropan puntillek edo hala paratzen zire. Brotxe eta halakoik ez. Lepoan zenbaitek gargantillek erematen zituzte. Gure etxean ez. Jitokeriak zirela erraten zue amak.

I.99. Eztut entzun sendatzeko ibiltzen zirenik. Orai reumaindako kobria erematen dute batzuk. Haurrai kuttuna ez zaio aldatzekoan ere kentzen. San Juanen ebanjelioa erematen du barnean.

I.100. Medallak bai, erematen zire. Orreagako Ama Birjiñe. Nik San Kristobal ereman nue autoa ibiltzean. Nafarroan emakumetako bigarren karneta nue nik. Nere herriko zaindarie ze gainera eta asko nahi nio. Jesusen Bihotza, Karmengo Ama birjinaren eskapularioa, Frantziskotarren Hirugarren Ordenakoa eta bertze batzu ere ikusten zire.

I.101. Sorginkerien kontrakoik etzego.

Andreak paratzen zute buru gañean tella gorrie. Nere izeba bati ikusi nio. Libretu berriek berrogei egunez erematen zute, maldizioik ez zezan izan.

I.102. Mezkirizko adineko gehienak erematen dute makile. Makildune ze nere gizona bera. Mendira denak makilaikin juaten dire. Iten zituzten makil politek, urritz makila arront dibujo politekin, subeak bezala. Giltzak ere bai.

Zumerike, makila oso meharra izeten ze zirri-zarra katuei iotzeko. Erran zaharra ere baze, gizentzen etzenai errateko: «Luze ta mehar mundu guzia in behar, a zumerike!».

I.103. Arropak urrine edo usaiñe goxua izateko armarioan menbrilloak sartzen zire. Patxaka (sagarmina) ere ona ze arropai usai ona emateko. Arropetan eta basijeruan sartzen zire. Polillaindako alkanfor.

I.104. *Goatze arropak. Lastoazala*, lastua sartzeko oihala¹⁷. Lastua artuaña izeten ze. Horren gañean paratzen ze *almadraka* edo koltxoña ardi illeikin eagine. Merino ze Iruña aldeko ardiena, eta Mezkitzen latxa.

¹⁷ *Lastoazala*, en rigor es una funda que en Urdiain llaman *uhazala*, *ubazala*. "Tela en forma de colchón, explica a su hija Gemma, con cuatro aberturas para meter el material de relleno, hojas de maíz."

MEZQUIRITZ (ERROIBAR)

Almadrakain gañan larrie (izara, maindere) ¹⁸, azpiko larrie; bertze larrie, gañekoa, bordatue edo puntillekin egine ze. Koltxille ere ardi illekin egine. Merinoa finago izeten ze.

1916an ikusi nue nik lenbiziko aldiz goatze muelleduna.

Artzain bordako goatzea, lenago behintzat, makilen ganean izeten ze. Makilak kurutzatu eta iretzea gañean.

I.105. Etxeko iendiak adierazteko hitz hebek ibiltzen dire: aitetama, gurasoak, haurrideak, aitetxi, amatxi, osabak, izebak, seme alabak, senar emazteak, goñatuak, goñatak, illobak, aitañarreba, amaiñarreba, suia, anaia, arreba, ahizpa, aidea. Aidetasun, parentesco.

I.106. Bataioan hurrein aitetxi izeten dire: 1) Haurrain aiteiñ aite eta amain ama. 2) Aiteiñ ama eta amaiñ aite. 3) Aitaren anaia zaharreña, eta amaren ahizpa zarreña. Laugarrenean, bertze aldera.

Ezkontzean ahide urbilenak aitetamak dire, eta haurrideak. Halare, bataioko aitetxi izeten ze ezteietako aitetxi.

Dolua. Senarrarena beti erematen du alargunak. Aiteña eta amaiña bortz urte terdi. Anaiena urte bat. Haur txikiendako doluik etze.

I.107. Etxeko nausien izena etxeek. Ez dakit noiztik hasita bada oitura bat nagusia aldatzian, izena aldatzekoa. Egin zenetik etxe bat bere izenaz deitu beharrean, nagusi bat hiltzen bada, ematen diote nagusi berriaña; erraten diote *Joseña*, edo *Juanena*, *Martinena*. Ala geienek deitzen dute etxea nagusian edo andreain izenarekin.

Nereak berak: egin berrian deitzen ze *Arakiñena*, lenagokoa zen bezala. Gero erdiek deitzen ziote *Juan Migelena*. Iltze nere aitetxi, eta gutik usteanean deitzen ziote *Rikardoña*. Iltze nere aita, eta ogeitasei urtez utzi nio neure aizpa bateri eta etzioten nere aizpaña ematen, eta nere gutiago: erraten ziote *Jenaroin* etxea. Eta nere ustez etxe batek beti ereman biarluke beti izen bera.

Anitz *Joxe* baze herrian. Bortz *Joxe* Saraguetaren artian ez iakin norendako ze karta. *Juan* denek erematen zute. Sorgiñen sinestiagatik paratzen ziote, San Juanek badukalako sorgiñen kontra indarra. *Martin* eta *Migel* izeneko jende anitz ere bada. *Kristobal* anitz baze lehenago.

Emakumetan, *Maria*, *Anttoni*, *Joxepa*. Etxearen izena aurretik eta jende izena gero aipatzen da: Kondieneko *Maria*. Bertze batzutan aldrebes: *Juan Kristobal* Mañuelainekua.

¹⁸ *Larrie*, sábana. Al hacer la colada se decía en Arruazu "larriak azpian", para indicar que las sábanas se metían abajo. También en Valcarlos distinguían *larriak* eta *xehiak*.

PERPETUA SARAGÜETA SARAGÜETA

Jendetan ez da izengutirik ibiltzen. Bat edo bertze bada, baño oraikoak. Ezkonduta gero ere emakumeak bere deitura (apellido) gordetzen du.

I.108. Aitetxi edo apitxi (abuelo). Amatxi edo amitxi (abuela). Alde bietakoak berdín deitzen dire.

Senar emazteak zuketan mintzatzén dire elkarrekin. Iketan anaién artean. Ni baino hogeí urte gazteago da nere anaia tipiena eta zuketan egiten dugu. Aitetxi, amatxi eta Apezari berorika egiten ginue. Ezin dut erran legunekin nola egingo nukén. Mezkititzen diren nere adineko emakumeak ez didate euskeraz hitzik egiten.

I.109. Ni sortzean etxe berria egiten ari zire nere gurasoak eta egun hartan teilatuan trapue paratue emén ze. Nihork minik hartu etzuelako paratzen zute. Etxe hontan atra diren anima guzien alde otoitz egiten da; eta Anjelus errezatzean, difuntuen alde. Bela bistuak hobietan.

Asotsak. Bazire etxe batzutan.

Argiak Pedro Ferminenko larrainan.

Nere aurtzaroan eta geiago gaztetasunean, nere etxeari urbil ilun nabarrean edo gabaz, izeten ze argi anitz. Nik ez dakit zetaz ez eta zer argi ziren.

Etxetan etze urik eta anitz aldiz ur eske eta, zenbat aldiz etxera itzultean eskuñeko aldean etxe baten leioan agertzen ze. Batzutan ez ikusiaña egiten nue ez zeien ikeratu nerekin zeien anaia edo aizpe, betiere ni baño gazteagokoa; ze eta ez bazue ikusten ez ze izitzen.

Bein, besta bigarreanean afaltzen aigine denak, etxeakoak eta kanpokoak eta bear bada geiago. Nik bazue denbora ikusia nuela, baño ixilik egon nitze etzeitzen quartu nior ere afaldu artio. Eta orduan aterazi nitue denak kalerieko leiora eta alde artara ginduzen leio guzietara eta ikusi gindue denek. Gizon buru baten negurria zuen eta dirdiretzen zue aski, eta mogitzen ze aski argi ori, eta berdea nasi nasia ze.

Aitua nue lendik bazela karabinero bat erregebidetik ateratzen zituena gisa guzietako argiak eta ez nue naigaberik artu. Baño etxe barnean ere ateratzen zire, eta berdín erregebidera leioak zituztenek nola deus ere ikusteik etzute nei, arrats batez, ia aspertuxea ergelkerie ebetaz, egin nue: —«*Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Onen aldekoa balin baiatz mintzai; eta gaistuen aldekoa balin baiatz fundiei sekulako*».

Ordu artaík onat ez dut egundaño geiago argik ikusi. Nik atseñ artu nue. Eta uste dut niok ere ez duela ikusi nere etxean, ez badugu geurek bixtu.

I.110. Familia batean ezkondu gabe haurra izatea etxeakoendako lotsik haundiena ze. Denboraík gabe lenbiziko haurra izatea ere bai. Baño etzute etxetik aterako. Etxeko guzien lotsa.

MEZQUIRITZ (ERROIBAR)

Ezkontza kontuan izeten zire batzutan goraberak. Ameriketatik etorri ze sos anitzekin herriko seme bat, eta uste zute etxe batera ezkonduko zela, etxalde ona baitze. Berak batre kasoik in gabe, etxeik pobrenera ezkondu ze. Erraten zute begi gaistoa bota zakola. Etxekoandre zaharrak: —«Ez alduzue haur bat bizirik ikusiko!».

Nere amatxi emagina ze, emagin laguntzalle, eta ikusirik haur guziak hiltzen zaizkotela, erran zakoten amatxiri zergatik etzuten Arreko elizara erematen. Nik uste, lau edo bortz hil zitzeizko ordureko.

Arreko Trintetera ereman behar ze haurra bataiatzera.

Nere amatxik erran zako, eta bertze haur bat sortu zelaik, neure amatxik berak lagundu zue ama haurrarekin Arreko elizara eta Trinidad izena eman zio. Ederki hazi ze, baño 22 urtetan hil ze. Neska ze, eta ilabete-kuaikin zegola aitai laguntzera Huarteko ferira etorri. Bidean busti ze, etxera juan eta hil ze.

Jaiotzean eta ezkontzean ahaideak elkarri ematen dizkiote presentak. Hiltzean ere bai deitzen zire funtzio ahaideak.

Izeten zire alorreatatik kustioak. Batek bertzeari lurra ian dakola, alorrean barnegi sartu dela, eta hala. Testiguak deitzen zuzte, eta haiek erraten bazuten bidea hemendik da, hala izen behar zue.

I.111. *Etxean*. Seme edo alaba zaharrena ezkontzen da etxera, eta naguse gaztiak gurasoekin bizitzen dire. Hameka, hamabi eta hamairu umeko familiak bazire lenago. Hamazazpiduna ere ezagutu nue. Nere aitarendako erraten zute, bederatzi urtetan erregebidea egin zutelaik egun guzian saskiak arriz eta lurrez beteak erabiltzen zituela batetik bertzera. Bere bizi guzia lanean, eta bertze gehienak berdin, denbora hartan. Baño ala ere, ez du ume batek ere utzi bere aita eta ama zahartokira juaten. Nagusi eta etxeokoandre gazteak baño lenago izeten dire eben aita eta amak. Nere ustez ohoreik haundiena herri batendako.

Nere aitain ama ze zaharrena baño zerbait egin zue bere gurasoek nahi ez zutena, behar bada ezkondu nahi etzutenaikin, eta bota zute etxetik. Baño, bere ama beraikin juan ze.

Etxeko seme alaba guziak ezkondu artio, berek nahi badute, etxean gelditzen dire, eta ez ditu nihork kanpora bialtzen. Donado ta donada edo neskazarrak ere bai. Lana etxerako egiten zute.

I.112. Familiakoak festetan biltzen dire. Xerri hiltzekoan gizonak. Etxe zombaitetan etxeokoandreak laguntza behar bazue, emakumeren bat ere juaten ze.

Xerri hiltzian amak agintzen zio aitai nor konbidatu. «Erran halakoi eta halakoi etor ditezela bazkaltzera.» Gero aitak konbidetzen zitue. Ez badira

juaten senditu egiten da. Erakusten dira etxean egindako obra eta bertze gauza berriak. Konbietuak ez du deus erematen.

I.113. Zaharrak dire lehenik. Etxe bakoitzean kaja bakarra izeten ze, eta naguse zaharrak gordetzen du. Etxekoandreak olluena, arroltzena eta esniaina berak gordetzen du.

Guraso eta aitetxi-amatxiendako begiramendu haundia izeten da.

Gauza larrietan, patata saltzean, behi edo idi erostean, erostekoan eta saltzean denen artean ibiltzen dituzte solasak.

Bizi diren denbora guzian dute etxeko seme alaba ezkondu gabeak etxean bizitzeko eskubidea.

I.114. Ahaideak etzire sartzen etxeko gauzetan. Zor kontuan ez dakit deuse.

Esnea anixko ginuelaik goñata guziei bialtzen zien gure amak. Ez sosik hartu, erraten zigu.

I.115. Ahaide aberatsak ez gintue ezagutzen ere. Urrin zarra ginuela pobrek, erraten zue aitak.

I.116. Etxea eta lurrak batendako izeten zire denak. Ezin zire puskatu. Nik ere etxea denendako in behar dut. Senarrak ezin du deus ere saldu emaztearekin kondatu gabe. Ondasun guziak senar emazteen artekoak dire, paper bat iten zute notarioan.

Haserretzen bazire senar emazteak eta bereizten, gurasoei itzuli behar izaten zieten zerbait.

Etxea eta lurrek saltzea etze batre ongi ikusia. Lehenik urbilekoek erosi dezazkete. Ahaidei erran gabe salduz gero, honenbertze denboran urbilene-kuek eskatu dezakete erostea, eta lehenbiziko ebek dire.

I.117. Orai ez da mutilik etxetan. Beren gise ibiltzen zire. Etxe batean edo bertzean nagusiaikin mahai berean iaten zute, hala nola Paskualeñian; etxeko bezala. Bertzetan ez. Peon eta dendari edo egun bakarretan juaten zirenak, nagusien mahai berian iartzen zire.

I.118. Zaharrena etxera egiten ze, berdin emakumea baze nola gizakie. Ez da etxea puskatzen eta lurrak ere ez, ahal bada haunditu. Gurasoek eskubide osoa dute paperak egiteko. Bi aldetara egiten dire: batzutan testamentuz eta bertzenaz ezkon paperez edo kontratuz. Senar emazteak elkarrekin egiten dituzten anai arteko paperak bertze alde dire¹⁹.

¹⁹ Se refiere al documento de Hermandad, por el que los esposos se trasfieren mutuamente todos los derechos y obligaciones, de modo que cualquiera de ellos pueda



1.—Ureta. Conjunto de tejados de poca caída.



2.—Mezquiriz. Paxkualena, barrio de Txorrondo. Tejado de vertido a varias aguas.



3.—*Txorrondo*. Casa Juan Miguelena, construida en 1905. Actualmente reformada. Ha conservado el tejado a dos aguas, con caída de mucha pendiente que evita el excesivo acumulamiento de la nieve.



4.—*Mezquiriz*. Etxetxipia. Conjunto de vivienda y dependencias anejas.



5.—Ureta. Casa señorial.




6.—Mezquiriz. Etxeberria,
llamada Artegia.



7.—Mezquiriz. Casa Parroquial. En la clave del arco de la portada dice: *Año de 1787*. La fachada actual es moderna.



8.—Torre de la iglesia de Ureta.




9.—Portada de la casa Zuria o Zurienea.



10.—Portada de la casa señorial de Ureta.



12.—Esportero. Detalle de la clave del arco.



11.—Mezquitiz. Portada de la casa Esportero.



13.—Detalle de la portada de Apesui.



14.—Símbolo heráldico de la clave del arco (Apesui).



15.—Apesui. Portal con escaleras laterales.



16.—Marcos y cabezal de madera sobre soportes de piedra.



17.—Mezquiriz. Bentarraña. Original patio interior.

18.—Bentarraña. Inscripción encima de una sobre-ventana del patio.






19.—Marterena. Provisión de leña a la puerta de casa.



20.—Mezquiriz. Arabeña. Más leña sobre el paisaje nevado.




21.—Manuelaña. Borda de madera en el barrio de Txorrondo.
Quedan pocos restos de este estilo tradicional.



22.—Adamenea. Colmenas junto a la vivienda familiar.



23.—Zuria o Zurienea.
Horno de pan.



24.—Molino harinero
de Ureta.

MEZQUIRITZ (ERROIBAR)

Ikasi bear baze eskola aundi zenbait, erderaz carrera, geienean bigarrena izaten ze; eta semea balin baze apeza, gero alaba zenbait iostuna. Eta laugarrenain ondokoetaik Ameriketara.

Seme alabei gurasoak bizi ziren bitartean haiek erraten zutena ematen zitzaaien. Gure etxean aite ta ama bizitu zire eta bakoitza bere alde jua ze. Ez zute lanik egin, zer emango zio?

Gurasoak bizi diren bitartean parte bat berena da. Gero, argia, iorzketak, mezak, ofrendak, erresponso eta bertzeak egin behar zitue etxeko seme edo alabak.

Gasateak ezkontzean, gurasoekin bizitzen dire, mahai berean iaten dute eta etxe berean lo egin. Biak dire naguse. Bertze seme alabei, lana egin badute, dotea ematen zaie. Orain Zubirira jua ten dire lanera. Etxeko nagusiak behar guziak uzten dizkio gazteari. Ez da ondasunik puskatzen; etxe ttipia izanik, dena osoik ematen da. Lehenago apez batek errana da, kanal batzu bezala ginela, gure eskuetatik pastzen zela gurasoetatik hartua.

Seme bortak²⁰ aite ta amek eman nahi ziotena bertzeik etzute. Gizajoak.

I.119. Testamentuik gebekoak. Errain dizut ondarrekoik gertatua. Alaba zaharrenaindako in zute gurasoek, eta ezkondu gabe zelaik hil zire aita-amak eta bera. Orduan, haurride guziak bildu zire elkarrekin eta, etxeko gazteena baitze ezkondu gabeko bakarra, hura in zute etxekoandre. Eta denak bizitu dire bake santuan. Ez da ezkondu eta badu adin puskat, dena izain da gero denendako. Beren artean egin zute.

I.120. Alargune bizideño, lehen errandako paperak eginak badituzte elkarrendako, ondasun guziekin bera gelditzen da. Gehienek egiten dituzte paper hoiek. Eta paperik ez badute ere, ez da horrengatik sekula etxerik desegin.

I.121. Etxe batean bazituzte bida inklusatik ateratakoak. Etxeko guziak Ameriketara jua nak zire eta mutikoa eta nesakoa hartu zituzte. Benito erriberakoa ze eta tutik etzekie euskeraz, eta etxean denak euskaldunak. Arront etxeko bezala zituzte biak. Gero seme bat etorri ze Ameriketatik eta etxera ezkondu ze. Herrira ezkondu ze neska eta mutikoa Ameriketara jua ze, etxeko seme batekin lana egin zue.

Artzaiak zire Mezquiritzen eta artzaña behar zute. Ongi etorri zitzeko Bertze nunbait erran dugun bezala (I.106) bataioko aitetxi izeten ze ezteietako aitetxi.

disponer plenamente de todos los bienes del cónyuge en caso de fallecimiento. Es normal en Navarra. Se firma ante notario.

20 Seme *borta* o *bortta* es el hijo natural.

SENAR EMAZTE ARTEAN

I.122. Berdintsu manatzen du senarrak ala emazteak. Alorreko lanetan eta artzañen gauzetan gehiago, behar bada, gizonak. Etxekoetan emakumeak.

I.123. Ez da ongi ikusia emakumeak gehiegi agintzea. Gizona motela dela ikusten bada, kanpokuek gehiago mintzatzen dire etxekuek baño. Gizona sobera sartzen bada etxeko gauzetan ere ez dago ongi.

Elkarrekin diferentziak beti izaten dire, denetan bezala. Lehenago erraten zute, etxeko sua etxeko hautsarekin estaltzea zela hoberena. Gauza hoiek beren artean gelditu behar dire.

Musu, losenja eta halako markaik ez da kanpoz agertzen, senar emazteen artean. Hoiek barneago eta hobe izeten dira. Eri dagolaik bat edo bertzia, kariño gexago agertu, hori bai.

Zuketan hitz egiten zute beti elkarrekin.

Amatxiri, aitetxiri eta apezari, berorika. Errespeto gehiago du. Adinekoa delaik norbait, hari ere berorika.

I.124. Gizonen lanak, alorrek lantzea, abere larriak zaintzea, egurra ekartzea. Emakumearenak, bazkari ona prestatzea, etxea garbitu, goatzeak egin, arropak garbitu eta gasna egitea. Lixua eta ogia egitea.

Belarrak gizonak ebakitzen zitue eta andreak itzuli eta bildu. Gizonak sartu. Baratze lana gehiena emakumeak egiten zue. Lurra itzultzen laguntzen zio gizonak. Patatak erein eta xorratzea andre lana ze.

I.125. Alorra edo lantokia urbil zelaik senar emazteak elkarrekin juaten zire. Urrun zutelaik lana andrea gelditzen ze etxean eta bazkarie bialtzen zue. Bertze batzutan, etxekoandre gaztea egun guzian alorrean eta etxekoandre zaharrak bialtzen zien bazkaria.

I.126. Berdin naguse ziren biak bien ondasunetan.

I.127. Zaharrak ez dire sartzen gazteen bizian. Zenbait etxetan, hala ere, ama neskato bezala ze eta amatxi etxekoandre. Bera diruaren jabe, berak hurrei jatera eman eta agindu. Naguse gaztiak ekarritako soldata ere berari eman behar. Hoietatik denetan izeten dire.

Amañarreba eta aitañarreba erraten zaie zaharrei; suie eta erreña dira kanpotik etorritako gazteak.

I.128. Gehienak aideak zire elkarren artean. Senarra delaik etxekoa, emaztea piskat baztertua egoten da etxekoen artean. Arroztua. Gero, berak

MEZQUIRITZ (ERROIBAR)

tiratzen du ahaidegua: «Nungoa da gure etxekoandria, hangoa da gure aidegua».

I.129. Balin bada gizon nekazari bat erixko dagona, bere barrideak erraten diote alkate jaunari, eta batzarrean erraten du. Gizon eriaín lanak egiten dire denen artean lemexiko igandean, apezari erran ondoan.

Nere aurtzaro eta gazte denboran, iltzen zelaik nornai bi auzoak juaten zire bere umeak edo anai arrebak bizi ziren errietara edo bordetara, eta erematen ziote mandatua. Baña orai uste dut urrutizkiñarekin balietzen direla.

Baño lenago gaitza ze eta oroitzen naiz nola bein nere aita olako mandatu bat ematera juan zen egun batean, lenik Bankara, Bankatik Baigorriara, Baigorritik Arizkuna eta gero Bozatera, dena oñez. Eta gero etxera.

«Erriko Txoko», lehen herriko ostatua ze eta orai denak biltzen diren jostatzeke lekua da.

I.130. Haurrekin ama konpontzen da. Aita ez da sartzen.

I.131. Haurrik etzuenari '*matxorra*' erraten zitzeio. Etxe batean etzute haurrik eta senarrain aldekuak andreain gain botatzen zute hutsa. Senarrak etzue juan nahi medikura, eta gero ikusi ze senarrak zuela ezina.

I.132. Gure etxian otoitzak eta sinesmenezko gauzak aítak eta amak, biek erakutsi dituzte. Aítak belautan gainean hartuta, askotan kantuz erranazten zizkigu.

I.133. Nere aítak lur lanean denbora guti egiten zue, irabazi nai zuelakoz egunean bear zena. Sakarte eta Larregañen beiekin pasatzen gindue goldea, eta gero ongi ailtzurtu, berriz area pasatu, gero ailtzurreikin...

Nexka mutilak lan berean egoten bazire egun guzian, etxera etortzean, mutikoa aitein mai berean afaltzera eta nexka gaixua afarie prestatu eta zerbitzatzera aita eta anaiei. Eta afaldu onduan ontziek garbitu eta sukaldea biltzera nexka, eta mutikoa iostatzera.

Nik ikusi ditut gauza txarrak arront txarrak... artzen dituzte lan egiteko eta goizeko seietaik artseko amarretaraño lan gogor batean sei pezeta egunean. Afera onek badu ia berrogei urte. Eta gizon orrek bazitue andrea eta bi alaba eta ezin bizi, eta bizi txarra autetu zute, eta gazte il zire denok.

Aitzen ze gauza aski senide guzieindako, baño gizonain nagusieindako ez, itz bat ere. Eta nere idurikoz oben guzia arena ze. Saritu izen bazue merexi zuen bezala etzue niorek bide ori artiko. Ori uste dut zerengati badakit gizon batek erran ziola senarrai nola zebillen bere andrea. Eta erran omen zio: —Zerbait egin biardegu bizitzekotan.

PERPETUA SARAGÜETA SARAGÜETA

Orai ori etze pasatiko... Gañera erri aundia ze eta bildiko ze bear zutena. Gauza itsusi aski ikusi dut eta ez batere neure errian Jaunari eskerrak.

Mezkiritzen orai etxe gehienetan bada beribila. Badire zenbait ez direla Zubirin gelditzen lanean, Iruña inguruan dute beren lana, ez bada Iruña berean. Eta oietaik bakotxak bear du beribila eta gisa ortan etortzen dire egunoro eta beren etxean pasatzen dute gaua.

Perpetua SARAGÜETA SARAGÜETA